

zakilixut

© Olariagak



Ainara Argoitia | DONOSTIA

ATZEKOZ AUERRERA

Janzkera, izaeraren ispilu

XIX. mendeko euskaldunen arropen desfilea izan da Donostian, Ikerfolkek antolatuta

«Euskaldunak beti jantzi izan gara ondo, elegante». Hitz horiei apaltasun apur bat ederto etorriko litzaiekeela uste izango du norbaitek; atzo Kutxak Donostiako Arrasate kalean duen aretoan izan zirenek, ordea, arrazoirik falta ez duela uste izango dute.

Gure arbasoek janzkerari zenbateraino erreparatzen zioten frogatzeko aukera izan zen atzo Donostian, Ikerfolk taldeak antolatutako moda desfilean.

Alkandora zuriak, satenezko

brusa beltzak eta mila koadroko brusa urdinak, gomazko zein larrazko abarkak, abarketa zuriak eta txapela. Gisa horretako arropak jantzi ohi zituzten XIX. mendean Euskal Herriko mutilek.

Gaur egun gertatu ohi den moduan, arropetan aukera zabalagoa zuten orduan ere emakumeek. Kolore askoko eta lasaiera handiko gonak, amantal luzeak, bordatu landuzko azpiko gonak, espartin zuriak nahiz botin beltz kordadunak, zetazko zapiak, artilezko mantoia, era guztietako zapiak...

«Egun kalean ikusten diren arropen inbidiarik ez zuten ordurako», zioen txundituta emakume batek. «Dotoreago bai, baina horrenbeste arroparekin ezin emakumeen hanka ederrak ikusi!», aitortu zuen ia ahapetik haren alboan eserita zegoen gizonak. «Kipulen antzera kapa ugari izaten zituzten: pololoak, azpiko gona...», azaldu zuen Ane Albisu aurkezleak.

Garai bateko euskaldunak kolore beltzez jantzi ohi zirela uste izango dute askok; usteak erdia ustela izaten duelako adibide garbia hori ere. «Gure arbasoek gustuko zituzten kolore askotako arropak, eta etxean zituzten oihalak birtziklatuz arropa finak josten zituzten», azaldu zuen aurkezleak ikusleen txalo zaparrada artean.



PABLO S. QUIZA

Gona luze eta lasaiera handikoekin ere arin eta dotore dantza egiterik badela erakutsi zuten modeloek.



PABLO S. QUIZA

Gizonezkoen arropak ilunak izaten ziren normalean; emakumeenak, berriz, kolore askotakoak.

